

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA:
MARKESINEN GARBIKETA (DESGAITUAK)**

- 1 FASEKO PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZA
- 3. FASEKO ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALERAKO DEIALDIA
- 4. FASEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIORAKO DEIALDIA

Lehena.- Argitara ematen da Markesinen Garbiketarako Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuko **1 Faseko Proba Profesional Praktikoaren emaitza** (Desgaitasuna) (1. ERANSKINA).

Bigarrena.- Interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak edo akats zuzenketak egin ahal izango dituzte, 2 egun balioduneko epean, iragarkiaren argitaratze eguna barruan sartuta (**abenduaren 20a eta 21a**). Horretarako, erreklamazioetarako dagoen inprimakia bete, eta Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan entregatu beharko dute (Fernando Sasiain kalea, 7), goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean.

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu eta, behin ebatzita, behin betiko emaitzak argitaratuko dira www.dbus.es web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan, **2018ko urtarrilaren 3tik aurrera**.

Hirugarrena.- Dei egiten zaie GAI diren hautagaiei Hautaketa Prozesuko 3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko. Fase hori 2018ko urtarrilaren 5ean egingo da OTEIC TALDEAREN bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua – Donostia-San Sebastián). Begiratu 2. ERANSKINEAN bakoitzari egokitu zaion txanda.

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horretaz aparte banakako edota taldeko beste proba batzuk ere bai, ikusteko ea haien ezaugarriak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen.

Fase honetan 12 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 20 puntutik.

Laugarrena.- 4. FASEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIORAKO DEIALDIA:

- **Euskararen ezagutza:** Onarpen Eskareren Inprimakian Euskara proba egin nahi zutela adierazi zutenei dei egiten zaie, 2018ko urtarrilaren 8an, 10:30ean, URUMEA EUSKALTEGIAN (Donostia-San Sebastiango Prim kalea, 9 –atzealdetik sartzen da–) egingo den euskara proba egiteko (proba idatzia, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera).
- **Esperientzia Profesionala** (Gizarte Segurantzak egindako justifikanteekin edota enpresa ziurtagiriek egiaztatuko da): **3. Faseko proba egitera doazen egunean, hautagaiek dagozkien akreditazioak aurkeztu beharko dituzte.**

Probak egiteko, hautagaiek NAN, pasaporte edo gidabaimenaren originala erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

Hautaketa Prozesuan zehar, Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkeztu baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- **Web orria:** www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- **Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).**

Izpta. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2017ko abenduaren 20a

1. ERANSKINA:**1 Faseko Proba Profesional Praktikoaren emaitza**

NAN	1. FASEA PUNTUAZIOA (gutxienez 30/40 puntu)
15934100E	EZ DA GAI
34105168D	36,00
35779780Z	EZ DA GAI
44148487X	30,00

2. ERANSKINA:

3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia.
Fase hori OTEIC TALDEAREN bulegoetan egingo da (Zuatzu
Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua – 20018 Donostia).

NAN	EGUNA	ORDUA
34105168D	2018/01/05	9:00 h
44148487X	2018/01/05	10:00 h